| | |
|---|---|
| **Izenburua** | Kutsidazu bidea, Ixabel |
| **Formatua** | Liburua |
| **Egilea** | Joxean Sagastizabal |
| **Argitaletxea** | Alberdania S.L |
| **Urtea** | 2003 |
| **Nori zuzendua** | DBH eta batxilergoko ikasleei |
| **Laburpena** | Umorea da eleberri honen ardatza. Umorea literatur tratamendu egokiz egina, estilo arinez, generoaren arauekiko berritzaile, eta beste berezitasun garrantzitsu batekin: arrakasta. Giharren bat ukitu izango du liburu honek euskaldun berri edo zaharberrituen gorputzean, nork bere burua identifikatua sentitzeraino pasarteren batean edo bestean. Izan ere euskal belaunaldi baten ispilu konplexurik gabea da Kutsidazu bidea, Ixabel. |
| **Gaiak** | • Estres linguistikoa<br>• Hizkuntza-hautua<br>• Aurreiritzi linguistikoak |
| **Orri kopurua** | 120 |
| **Eranskinak** | • Liburuaren erreferentzia: https://www.elkar.eus/eu/liburu_fitxa/kutsidazu-bidea-ixabel/sagastizabal-joxean/9788495589804 |
| **Oharrak** | Nola lotu liburu hau soziolinguistikarekin?<br>Euskara bera delako gai nagusietako bat, eta soziolinguistikaren hainbat gaitan sartzen lagunduko digulako. Euskara ikasten ari den gazte baten bizipenak dakarzkigu idazleak liburu honetan. Gaztea baserri batera joan da euskara |

| | |
|---|---|
| | ikastera eta euskaraz bizitzera. Juan Martinek, hori baita gaztearen izena, “euskararen mundura” egiten duen bidaia da liburuaren gaia. Euskara ez ezik beste gauza asko ere ikusi eta ikasiko du bertan. Bere odisea horretan Homeroren Odisea klasikoaren elementuak ere aurki ditzakegu, parodia moduan. Bidaia epikoa da, beraz, abenturaz betea. Liburu honek, oraingoan, atea zabalduko digu hizkuntzen errealitatea hobeto ezagutzeko, eta bereziki euskararen egoera lantzeko. |